

## BHUTAN

# Nekazaritza ekologikoaren alde, etikaz eta pragmatismoz

2020. urtetik aurrera Bhutanen nekazaritza ekologikotik datozen fruta eta barazkiak bakarrik ekoiztuko dituzte. Neurri hori hartuko duen munduko lehen herrialdea izango da.

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |

ORGANIKOA BAKARRIK, praktikotasunagatik eta arrazoi filosofikoengatik. Bhutango nekazaritza ministro Pema Gyamtshok esplikatu zuen otsailean, Indian antolatutako Garapen Jasangarriari buruzko Goi Bileran: “Lurralde menditsua da gurea. Gai kimikoak erabiltzen ditugunean ez dira gelditzen erabilitako lekuan, urari eta landareei eragiten diete. Ingurumen guztia kontuan hartu behar dugula uste dugu”. Hori dela-eta, pestizidak eta herbizida kimikoak galaraziko dituzte hemendik zazpi urtera.

Neurri horrekin elikagai gehiago ekoiztea ere espero du Gobernuak, eta kalitate hobekoak izatea. Horretan datza erabakiaren alderdi pragmatikoa: inguruko herrialdeetara gehiago esportatuko dutela uste dute Bhutango agintariek, besteak beste elikatzekeo sabel asko dauzkaten Indiara eta Txinara.

Ministro izateaz gain nekazaria ere baden Gyamtshok, nekazaritza organikoa bakarrik erabiltzeak denbora beharko duela adierazi



du: “Ezin dugu egun batetik bestera egin. Eskualdez eskualde joango gara, kimuz kimu”.

Erronka garrantzua izango dela adierazi du. Beste bat, 2008an monarkia absolututik sistema monarkiko parlamentariora pasa zen 750.000 biztanle inguruko estatuarentzat. Herrialdearen garapena klima aldaketa bezalako gaiekin lotu zuen laborantza ministroak eta

bereziki nabarmendu zuen energiaren eta elikaduraren alorrean burujabe izateko premia.

Duela 30 urte eskas zabaldu zizkion atek Bhutanek nazioarteko kapitalismoari eta geroztik garapen bidean diren beste herrialde askotan sortu diren problemak azaltzen hasi dira: nekazaritzan jardun nahi ez duten gazteak atzerriara joaten hasi dira –Indiara batez ere–, eta kontsumismoaren eskutik masakultura zabaltzen hasi da. Nekazaritza ekologikoaren aldeko erabakiarekin garapen eredu propiorako urratsak eman nahi dituzte. ■





# irudimena .com

Sormen lehiaketa | 3. edizioa

-  **1** Soinu bat aukeratu irudimena.com web orrian
-  **2** Soinu bat, testu bat edo irudi bat sortu
-  **3** Bidali! irudimena.com gunetik

Sari frango irabazteko | Martxoaren 1etik maiatzaren 15era

   